

JARDUERA SAILKATUAREN LIZENTZIA BEHAR DUTEN JARDUERAK ETA INSTALAZIOAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen
I.C eranskina

Betiere 10/2021 Legearen:

- I.A eranskina "Ingurumen-baimen bateratua behar duten instalazioak" eta
- I.B eranskina "Ingurumen-baimen bakarra behar duten jarduerak eta instalazioak"

ataletan jaso EZ diren jardueren kasuan, **sailkatutako jardueretako udal-lizentziaren mende egongo dira honako jarduera eta instalazio hauek:**

1.- Erauzte-jarduerak.

2.- Instalazio nuklearrak eta erradioaktiboak.

3.- Energia elektrikoa ekoizten duten instalazioak, energia berriztagarria energia elektrikoa bihurtzeko biltze-eta eraldatze-instalazioak barne, potentzia instalatua 100 kW baino handiagoa baldin badute.

Ez dira sartzen energia fotovoltaiakoko instalazioak, baldin eta finkaturik dauden lurzoru urbanizatueta edo lehendik dauden eraikinetan badaude.

4.- Industriak, oro har.

5.- Azaleraren tratamenduak, pistola bidezko bernizatze- eta pintatze-lanak edo antzekoak egiten dituzten tailerrak.

6.- Hainbat tailer eta lantegi (ibilgailu motordunen mantentzea eta konponketa eta antzekoak, aroztegiak, galdaragintza-tailerrak, muntatze-tailerrak, mekanizaziokoak, okindegiak, gozotegiak, cateringak...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa eta elektrikoa, argiarena kenduta) 25 kW-ekoa edo handiagoa bada eta ekoizpenerako azalera 300 m²-tik gorakoa bada.

7.- Biltegiratzeko, salerosketarako eta erakusketarako jarduerak edo instalazioak, toxiko, arriskutsu edo sukoi gisa katalogatuta dauden produktuak eta materialak baldin badituzte (500 kg-tik gora, bizitegirako hiri-lurzoruan, edo 1.000 kg-tik gora, gainerako lurzoruetan).

8.- Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko instalazioak edo antzeko instalazioak.

9.- Edozein motatako lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 50.000 litrotik gorako edukiera badute.

10.- 500.000 m³ baino gehiagoko edukiera duten lurrezko eta harrizko betelanak, betiere lanek urte bat baino gehiago irauten badute, azpiegitura linealetarako obrei lotuta daudenak izan ezik.

11.- Hondakin-urak arazteko instalazioak eta edateko ura tratatzeko instalazioak.

12.- Arrain-haztegiak.

13.- Abere-hiltegiak.

14.- Dantzalekuak, diskotekak, gazteentzako diskotekak, disko-barak, karaokeak, bar bereziak, pubak edo antzeko establezimenduak, baita zezen-plaza egonkorak ere.

15.- Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako beste establezimendu batzuk, baldin eta, betiere, honako baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- 300 lagun edo gehiagorentzako tokia izatea.
- indarrean dagoen araudi teknikoaren arabera arrisku bereziki altuko gisa katalogatutako instalazioen bat edukitzea.
- kultura-balio handiko eraikinak izatea, beren ezaugarriek izaera orokorrean finkatutako baldintza teknikoak erabat betetzeko aukera ematen ez badute.
- ikuskizunei eta jolas-jardueri buruzko araudiaren arabera erregimen bereziko establezimenduak izatea.

16.- 300 lagun edo gehiagorentzako lekua duten gurtzarako zentroak.

17.- 20 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiagoko abeltzaintzako ustiategiak eta etxeko eskortak, edo ustiategi baliokideak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatian agertzen diren proportzioen arabera, edo horren ordean aterako den araudiaren arabera; txakur-zaindegiak (hazkuntza eta hezkuntza), 25 txakur baino gehiago hartzeko lekua badute; denak ere, baldin eta lurzoru urbanizaezinean edo industriarako hiri-lurzoruan badaude.

18.- Etxeko abeltzaintza-jarduerak, alegia, 4 ALU (azienda larri unitateak) baino gehiago dituzten instalazioak, eta txakur-zaindegiak, den-denak bizitegiarako hiri-lurzoruan baldin badaude.

19.- Lege honetan xedatutakoaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina izan dezaketen beste jarduera batzuk.